

<https://www.ikas.eus/spip.php?article1144>



# Laino pinpirina - 8. fitxa : esker onekoak izan

- Baliabide pedagogikoak - Baliabideak mailaka - zikloa - Haur literatura: ustiapenak eta baliabideak - Laino pinpirina -



Linean argitaratua data honetan: 2012(e)ko maiatzaren 3a

---

Copyright © IKAS Euskal Pedagogia zerbitzua - Eskubide guziak

erreserbatuak

---

### 8. FITXA : ESKER ONEKOAK IZAN

#### HELBURUAK :

- ▶ Dugun guziari ohartu.
- ▶ Enpatia sustatu.
- ▶ Esker onekoak izaten sustatu.

#### KONPETENTZIAK :

- ▶ Elkarriketa eta iritzi trukada sustatu ikasleen artean.
- ▶ Barne begirada bultzatu.

#### AZALPENA :

Kexatzeko eta gauzak edo bertzeak kritikatzeko joera dugu maiz. Baina zein zorte onekoak garen ohartuko bagina, kexatzeko eta kritikatzeko partez, esker onekoak izaten ikasiko genuke. Gu bizi garen tokian denetatik dugu baina maiz ez gara horretaz ohartzen eta ditugun gauza guziak izateko eskubidea dugula pentsatzen dugu. Baina, munduko bertze herri batean sortu bagina, ez genuke kasik deus izanen... Garaia da, bada, ditugun gauza guzien kontzientzia hartu eta eskertzen hasteko. Ariketa honetan, ikasleek dituzten gauza guzien zerrenda eginen dute (etxea, ohea, jostailuak, janaria, liburua, autoa... alde batetik, eta inguruan dituzten pertsonak : burasoak, haurrideak, lagunak, auzoak...). Ondotik, arbeleko alde batean idatziko dugu ikasle guzien artean aipatzen dituzten gauzen zerrenda. Arbeleko bertze aldean, azpiko mapan zuriz agertzen diren herrialdeetan bizi direnek duten gauzen zerrenda idatziko dugu (aise da, orokorrean zerrenda laburra baita : arropa bakarra, logela bakarra etxeko guzientzat, egunero janari mota eskas bera...).

Ondoko mapan zuriz agertzen diren toki batean sortu bagina, erran nahi baita mundu osoko leku gehienetan (hiru herrietatik bitan), ez genuke izanen ditugun gauza anitz. Ikasleak pentsa dezake ikustatez begiratu behar liokeela bere bizitzari.

[https://www.ikas.eus/index.php?action=image\\_responsive&img=IMG/png/esker\\_onekoak\\_izan.png&taille=160&1463155158](https://www.ikas.eus/index.php?action=image_responsive&img=IMG/png/esker_onekoak_izan.png&taille=160&1463155158)

**Laino pinpirina - 8. fitxa : esker onekoak izan**



**Laino pinpirina - 8. fitxa : esker onekoak izan**